

HELDUEN BERTSO-ESKOLENTZAKO IKASTAROAK 2018

OINARRIAK

Helduen bertso-eskolei ikastaroak antolatzekeo laguntza luzatzea da ekimen honen helburua. Aukeran ikastaro sorta bat eskaintzen da, baina proposamen berriak ere egin ahal izango dituzte bertso-eskolek.

Ikastaroaren finantzaketa erdia Bertsozale Elkarteak lagunduko du; gainerakoa (125€) bertso-eskolak berak ordainduko du.

Bertso-eskola bera izango da ikastaroaren antolatzaile, eta nahieran itxuratu ahal izango du: talde barrurako ikastaro gisa, herri mailara zabalik, bailarako bertso-eskolekin elkartuta, bere urteko ekitaldien barruan ...

Informazio gehiago nahi duenak jarri gurekin harremanetan:

transmisioa@bertsozale.eus

Eskaerak egiteko epea: 2018a

**Ikastaroen iraupena:
ordu eta erdi - bi ordu**

**Informazioa eta eskaerak:
transmisioa@bertsozale.eus**

**Ikastaro gehiago
proposatu ditzake zure
bertso-eskolak**

**Raparen inguruko hitzaldia** Odei Barroso

Rapak Euskal Herrian duen presentziaren eta bizi duen errealitatearen inguruko hitzaldia da. Raparen mundura hurbilpen txiki bat egiteko balio du, baita raparen edukiaren eta formaren inguruko eztabaida eta gogoeta luzatzeko. Rap abesti bat egiteko beharrezkoak diren oinarriak landuko dira eta hitzaldiak alde praktikoa ere izanen du: rap koplak edo pasarte baten ekoizpena. Bertso eskola bakoitzaren interesen eta nahiaren arabera izanen da hitzaldiak hartuko duen norabidea: ekoizpena, azalpena, gogoeta...

**U-morez: Bertsolaritzan garatutako umorea(k) aztergai, genero-ikuspegitik** Ane Labaka

Umorea boterea da. Nork egiten du barre? Nori buruz? Nola? Zein hiztegi baliatuz? Historikoki gizonezkoa izan da umore egilea, subjektua, eta gainerako guztiak bilakatu ditu umore objektu, gainerako guztiei buruz egin du barre eta tartean, nola ez, emakumei buruz. Umorea zapaltzea da goitik beherako norantzkoan. Behetik gora (edo parez pare) burutzean, aldiz, askatzea izan daiteke, erresistentzia edo are transgresiorako arma. Genero-ikuspegia eta diskurtso feministak gero eta hedatuago dauden garaiotan, nolako umorea(k) lekutzen dira bertsolaritzan?

**Bertso doinuak eta kantakera** Eñaut Agirre

Bertsoan garrantzizkoak dira esaten dena eta esateko modua. Performancearen barruan sartzen da bertsoa, bat-bateko jarduna, jendearen aurrean zuzenean egiten dena. Saio honetan saiatuko gara gai honetan pixka bat gehiago sakontzen, eta ondorengo galdera hauei erantzuten: Kantakerak zenbateko garrantzia dauka zuzeneko komunikazioan? Doinuak ze funtzio betetzen du? Lehen eta orain ezberdin kantatu al da? Lehen eta orain estiloak izan al dira? Ikasi al liteke kantuan?

**Gai-jartzailea** Maite Berriozabal

Zubi bat eraikitzen hasi, eta dena ondo doalakoan, arrakalarik txikiak zalantzan jar dezake egindako lana. Gerta daiteke arrakala estali eta zubia erabilgarri izatea, baina izan daiteke arrakala txikiak arrakala handienari bide eman eta zubia goitik behera jaustea. Badakigu zerbait horri buruz noizbait gaiak jartzen aritu garenok; izan ere, zubigileak gara gai jartzaileak, eta entzulearen eta bertsolariaren arteko bideak diseinatzea dagokigu. Ikastaro honetan plazako bertso saioen diseinu eta gauzatzeari buruz arituko gara: plazaren azterketa, gaien aukeraketa, bertsolariekiko harremana, saioaren egituraketa, aurkezletza,...

**Bat-bateko bertsoen bat-bateko epaia** Iñaki Aurrekoetxea

Epaitza lana eztabaidatua bezain ezezaguna dela egingo nuke. Txapelketekin duen lotura saihestezinak ikusmin handia eta morbotik denez sortu izan dio. Bertso-eskoletan epaileen lana erakusteko saioa da hau eta, horretarako, hausnarketa aktiboa proposatuko dugu: epaitzeko lanaren gaineko mitoak apurtzen ahalegintzeaz gain, epaizpideak ezagutuko ditugu, horiek eztabaidatu eta praktikan jarri, zenbait bertsoaldi epaituz eta emandako epaien inguruan taldean gogoeta sustatuz.